



© KONTZERTUA

OLBEren denboraldi berria (eta disfrutagarria)



Jessica Pratt eta Leonor Bonilla sopranoak Lucia-ren rolean



LUCIA DI LAMMERMOOR / ANNA BOLENA

JESSICA PRATT, LEONOR
BONILLA, ANGELA MEADE

BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Udazkenarekin batera gure operaren denboraldi berria datorkigu. Urtero bezala, zain gaude, espetakulu totalaren dosiak jasotzeko prest. Aurten sei saio zinez interesgarriak izango ditugu Euskalduna Jauregian, eta denetatik aurkituko dugu: sarritan programatzen diren tituluak, konpositore famatuen harribitxi erdi-ezezagunak, mila aldiz gure artean izan ditugun abeslariak –arrakasta ziurtatuak–, lehenengo aldiz arituko diren abeslari mundialak eta bakarlari gazteak. Osagai hauekin dudarik gabe operazaleok badugu materiala disfrutatzeko.

Denboraldia urriaren 19an hasiko da klasiko batekin, *Lucia di Lammermoor* operarekin hain zuzen ere. Gaetano Donizettiren maisulan honetan pasioak eta gatazka politikoak nahasten

dira obra liluragarria egiteko. Bi Lucia izango ditugu: alde batetik, Jessica Pratt estatubatuarra protagonista izango da lau saiotan, baina urriaren 26an Leonor Bonilla sopranoa (ibilbide zinez meteorikoa izan duena) arituko da Luciaren rola eginez.

Bigarren zita Giuseppe Verdirekin izango dugu, aldi honetan gutxitan aurkezten den *Jérusalem* lanarekin, azaroaren 16an. Jorge de León tenoreak debuta egingo du Bilbon opera honen pertsonaia protagonistarekin. Aukera izango du, bada, duen ospea frogatzeko.

2020an sartuko gara Richard Wagneren *Der fliegende Holländer* lan ederrekin. Bagenuen gogoa Wagner bat ikusteko eta, beraz, gustoz entzungo dugu opera erromantiko hau, kontuan harturik Bryn Terfel baxu galestar pare-

gabea entzuteko aukera izango dugula.

Otsailean harribitxi bat topatuko dugu, Giacomo Pucciniren western moduko lan kuriooa, *La fanciulla del west* hain zuzen ere. Ez du zer ikusirik egile honen beste lan famatuekin (*La Bohème* edo *Madame Butterfly*), baina orkestrazio ederreko obra da eta interprete interesgarriak izango ditugu OLBEk eta Teatro di San Carlo di Napolik egindako produkzio honetan.

Apirilaren 25ean Rossiniren saio bi-koitza izango dugu. Alde batetik *Giovanna d'Arco* opera, eta bestetik, *Stabat Mater* lan liluragarria.

Eta amaitzeko, Donizettiren *Anna Bolena* drama eskainiko digu OLBEk. Tudortaren istorio beltz honetan Angela Meade soprano amerikarra izango dugu protagonista. Gozagarria. ●